

EUSKAL BILTZARRA: HIZKUNTZA ETA GIZARTEA

Aurreko «Karmel» 182. zenbakiaren irakurleak Luis Baraiazarra lankidearen artikulua luzea irakurtzeko betarik haina izan badu ere, oraingoan ere bere patzientzia pixka bat zirikatzeranator, hari beretik bainatorkio letra hauexen begiraleari.

Izan ere, egunotan gure kale, mass-medietan eta ia bazter guztietan barreiatu ikusi ditugun Euskal Mundu Biltzarren iragarkien tartean, lelo berdintsua errepikatu zaigu: «Etorkizunerantz».

Eta horixe da, hain zuzen ere, nire aldetik orrialde hauetara ekarri nahi dudana mezua, hots, Biltzar erraldoi honen barne euskara eta gizarteari buruz esandakoaz at ere, etorkizuneruntz zernolako uzta ekar diezaiukeen bilera honek.

Horretarako eta Baraiazarra lankideak Kongresu honen lehen sailari ekin zion neurrian neroni ere, bigarren saileko entzule izan nintzan aldetik, sail honen edukinari lotuko natzaio bereziki, eta gainbergiradatzoz bada ere, sail honek nire ustez erakarri zituen azalpen batzuren laburpena egingo dut. Aurretiaz esana doa, halare, hemen azalduko hitzaldiak nire jasaz aukeratu ditudala, alegia, hemen adierazitakoa hautaketa pertsonal bati dagokiola eta ez inola ere, Euskal Herri honetan hain gus-tokoa ohi dugun «hit-parade» bati.

Beraz, eta irakurleak girotzeko zera esan dezakegu: Lehen

sailan Hizkuntz deskribapenari lotuta bazegoen ere eta hirugarrena «Euskara eta hizkuntza naturalak eskuratu eta irakastea»-ri, bigarren honetan «Euskara eta Gizartea» genuen abiapuntu eta helburu: beraz gai zabal bezain irristakor horretan mugitu ginen Biltzarraren astebete luze eta bero hartan.

Bi izan ziren, atonketaren aldetik, hitzaldien mailak: batetik *ponentziak*, luzetxoagoak eta orokorragoak, eta bestetik *komunikazioak*, laburragoak eta gai konkretuagoetan arituak. Bietan, halabaina, gaur egun munduko espezialistarik handienak entzuteko parada izan genuen, batez ere algosajoiak (amerikarrak zein kanadiarrak) eta haiekin batera Katalunyako zein Euskal Herriko espezialista eta adituak, munduko beste irakasle batzuekin batera. Hizkuntz nagusia bihurtu zen ingleseraz mintzatu behar noski, eta gainera kasu askotan hizkuntz horretan entzun ere egin genuen hamaika azalpen. Dena dela Elebitasuna, Hizkuntz Planifikazioa, gizartearen bateratasuna zein aniztasuna (ikuspegi soziolinguistiko batetik) edo geolinguistika izan ziren sail honen edukinaren zati garrantzitsuak, egunerokotasun handikoak eta zergatik ez esan, baita ere eztabaidagarrienak.

Han entzundako osoaren zati bat besterik ez da hemen azaltzen eta gaiari heltzekotan ponentzi batzuk aukeratu izan ditugu haien esanahia irakurleak, nahi ala bere bostean sakon dezan.

Hasi zuen hastekoa Tove Skutnabb-Kangas irakasle finlandiarrek bere ponentzian «hizkuntz-hilketa»-ri buruz ihardun zuen Kongresuan «Hortensia» izenaz ezagutu genuen emakume xarment bezain fin honek. Eta gaia ere ez nolana hikoia, alegia, herri bat deuseztatzeko mekanismoak aztertu zituen, herri horren hizkuntzaren desagertzeak sortzen duen nortasun galerari heltzeko. Horrela eta heziketaren ikuspuntutik begiraturik, nazioarteko eskubide linguistikoaren errekonozimenduaren alde agertu zuen mintzalaria, giza eskubideen hirugarren pausoa legez (hots, eskubide indibidual eta politiko sozialez aparte); honela, talde gutxiengotarren bizibidea eta kultura berma ahal izateko. Gerokoan ere, Biltzar honen ostean Pernambuco-n (Brasil)

Unesco erakundearen menpean nolabaiteko formulazioa eman zaio Nazioarteko eskubide linguistiko hauen gaiari, horretarako antolaturiko bilera batetan. Beraz badirudi maila honetan ere zerbait egiten gabiltzala.

Hurrengo egunean eta inglesera zerbait ahaztuteko Siguan profesore katalandarra entzun genuen. Gaia, Frantzia eta Penintsula Iberiarren eboluzio soziolinguistikoaren deskribapen zuzena, hizlariaren jaioterriari (Catalunya) dagokion ikuspegia ahanzteke. Gerokoan, Aina Mollek, Generalitateko ordezkariak garatuko zuen ponentziaren aintzindari gisa. Egun berean, halaber, Baetens belgiarrak esandakoa ere hartu genuen, hau da, elebitasunak gizartearen barne beharrezkoa izanik ere anitz kasutan, zernolako bildur eta aurreritzi sortzen dituen.

Zerbait politikoagoa izan zen, ezbairik gabe, egun bereko arratsaldean William F. Mackey irakasle kanadiarrak (ez ahaztu, ICRB erakundearen partaide denik, erakunde hori elebitasunari buruzko azterketan aintzindaria delarik, mundu osoan) irakurritako ponentzia, non hiru eredu ekonomiko-linguistiko erkatu eta gero (Quebec, Eire eta Euskal Herria) zera ondoriora ailegatu zen: ez dela elkarren arteko lotura zuzena komunitate linguistikoaren eta eredu ekonomikoen artean, eta beraz garapenerako eredu ekonomikoek (kasurako Arrasateko kooperatibak) ez dutela zuzenean bultzatzen hizkuntzarik, gizarteak berak ahalginik egin gabe.

Ez zen ere alboratzekoa, eta hildo batetik ekarria gainera, hurrengo eguneko saioa (1987-IX-2) Bi hizlari nagusi: Cobarrubias eta Fishman. Gai nagusiak: Batak hizkuntz plangintza eta normalizazioa Euskal Herrian; besteak, oso teknikoki, gizarte homojenitate zein dibersitate linguistikoari buruzko faktore kulturalen ikerketa.

Lehenengoak, alegia, Cobarrubias-ek, bere hitzaldian zehar Euskal Herrian normalizazio linguistikorako eta hizkuntz plangintzan eman diren pausoak (argi/ilunak) aztertu zituen. Dena dela eta irakurle euskaldunak Cobarrubiasenak Biltzar honetara

etorri ez zen beste soziolinguista baten (Txepetx) iritziekin erkatzen baditu oso ondorio aberasgarriak eskuratuko dituelakoan nago. Izan ere Txepetx ezizenez ezagutzen dugun Sanchez Carrion-ez aritzen bait naiz konparazio honetan eta bereziki azken honek argitaraturiko liburu arrakatsu bezain gutxi komentatuaz.

Eta ekartze honetan nire ustez zerbait atera ahal bada hau xe da: Eusko Jaurlaritzak momentuon duen gai hauetango aholkulari baten (Cobarrubias) iritzia beste espezialista batekin kontrastatzea, inizatiba askoren aurre eta atzea ikus ahal izateko.

Iritziak iritzi, eta ene aburuz, ez bata ez besteak ez dutela eremu honetan eredu itxirik edo borobilik esango nuke. Oso-tzeko beharra nabaria da biotan (autoreek berek alde batera azaltzen dutenez, bestalde ere) baina biotan ere agerian daude diferentziak:

A) Cobarrubias-ek bere proposamenetan bi hari nagusi ditu: gizartearen funtzio linguistikoak zehaztea («comprehensivoracionalista» dio berak bere ereduaz) eta gehitzea edo hedatzea (estrategi gehitzaile baten bidez). Honek definizio mailan funtzio batzuk aukeratzea eramaten du, lege hesparrutik heziketaraino, bitartean komertzio, industria eta abar luze bat direla. Txepetxe-k, bide hauetatik abiatuta ere, hizkuntzen errekuerazioa jatorrizko komunitate baten lorpenean kokatzen du, haustura tentsio batez, oraingo eredu soziolinguistikoa apurtzeko. Cobarrubias-en funtzio deskripzioen alboan, Txepetx funtzio horiek bete behar dituen talde sozialaren formulazioan aritu da.

B) Cobarrubias-ek hiru ekintza moeta aipatzen ditu: funtzionala, geografikoa, eta demografikoa, euskara hiru maila horietan zabaldu ahal izateko, hori izanik gainera, hizkuntz plan-gintzaren helburua. Txepetx, ordea, hiztun multzo bateratu baten bila doa, normalizazioaren euskarri dena eta funtzio horiek betetzen dituena. Cobarrubias-ek nolabait egungo gizarte egoerari oinarrituta, gaur dugun gizarte elebidunean euskara zabaltzeko proposamena egiten du, hiru ekintza horiekin. Txepetx oster, haruntzagoa doa, gizarte aldaketa gogor bat proposatu

baitu, ezbairik gabe, beste gizarte batetara, beste oreka linguistiko batera heltzeko.

C) Ikuspegi akademiko batetik, Cobarrubias-en eredia analitikoagoa, soziolojikoagoa da, Txepetx-ena baino. Honen proposamena sozialagoa, politikoagoa dela esango nuke nik, gizartearen botere linguistikoaren birbanaketa eskatzen baitu. Azken finean, ene ustez, batek (Cobarrubias-ek) uste du momento honetan hobe dugula oinarriak finkatzea, funtzioak definitzea eta eremu hauek euskaraz sortzea, besteak (Txepetx-ek) horiek kontuta harturik ere, haruntzagoa joateko, hots, helburuak zehazteko garaia dela esan arren.

Beraz bi filosofi arazo batentzako: ez kontrajarriak, osagarriak baino; beharrezkoak baitira xedeak, xede horien zehaztapenean gizartearen egiazko datu soziolojikoak haintzakotzat hartuz geroz. Euskararen kasuan gainera, funtzio eza nabaria dela anitz kasuetan. Baina honetarako «geroko gero» aren zain egon behar.

Hau esanda buelta gaitzen gure Biltzarrera. Cobarrubias-en atzetik, ezin falta Euskara Biltzarrean soziolinguistika jaiio zenetik bere sortzailea izateaz aparte disziplina honi aurrerakada galantak eman dizkion judegu kapeladun hau. Joshua Fishman du bere izena. Joshua ponentzi oso tekniko baten bidez mintzatu zitzaigun, aniztasun linguistikoarekin zerikusia duten faktore batzuk: kultura, erlijioa eta abar aztertuz.

Hurrengo egunean (1987-IX-3) halabaina, eta besteak beste, Catalunya Generalitatearen Hizkuntz Politikarako Idazkaria den Aina Moll-i entzuteko parada izan genuen. Mari Karmen Garmendiaren auzkezpenaren ondoren, Aina Moll puntu askotan euskaldunek Catalunya egoera linguistikoarekiko dugun lilura apurtzera etorri zitzaigun. Halare Aina Moll-ek hemen lortu ez dugun zerbait laga zigun, opari gisa: gizarte katalandarrak bere mintzairarekiko duen atxikimendu oso, ideoloji zein pertsona desberdinen gainetik. Lege, Dekretu eta Boletinen gaindi honek ematen baitio hizkuntza bati bizia eta berebat ga-

rapenerako gunerik aproposena.

Baina Biltzarra ez zen ponentzietan amaitu, komunikazioak ere baziren eta. Hauek mass medietan horrenbeste arrakasta sortu ez arren, oso gauza jakingarriak eduki zituzten beren barnean. Kasurako, Strubell katalanaren komunikazioa «La modificación de la conducta lingüística en bilingües» edo Mikel Zalbiderena «Mende hasierako euskalgintza», Karmele Rotaetxe-ren «Competencia comunicativa y teoría de las diferencias» ahanzteke.

Bestetik ere eta idazten duen honi dagokion aldetik, zera aipatu II. eremu honetan: Zuzenbidearen eta hizkuntzaren arteko harremanei buruzko urritasuna. Neronek egindakoaz at Joseph Turi-k «La qualité de la langue est-elle juridiquement appropriable» aurkeztu zuen komunikazio interesgarria ere bazen Quebec-en frantsesak bizi duen egoera juridikoari buruzkoa hain zuzen ere.

Zerrenda luze hone ostean (eta aipatu gabekoak ahaztu gabe) zera datorkigu burura: instantzi ofizial zein eratzaitetik behin eta berriro errepikatu zaigunez, goizegi omen da konklusioak batzeko. Baina horren gainetik, eta Biltzar hau ospakizun handiki nahiz hutsala bihur ez dadin hortxe dago gure erantzukizuna, ideiak ematen, lanak burutzen eta batez ere euskararen aldean iharduten.

Andres Urrutia